



Erakunde kolaboratzaileak

**Lehen Aukera
programa
2020** (EHAA 26/12/2019)



A blurred background image of a modern office environment. Several people are visible working at desks with computers. The focus is on the foreground, showing a person's hand on a computer mouse and a keyboard. The overall tone is professional and collaborative.

01

Diruz lagun daitezkeen jarduerak

Deialdi honen 12. artikulua araututako erakunde kolaboratzaileek enplegu-eskaintzak bildu, erregistratu eta kudeatzea, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena ere, prozesu horiek, azkenean, eta deialdi honen babesean, diruz lagun daitezkeen kontratuak formalizatuta amaitzen badira.

01. Lan-eskaintzak biltzeko, erregistratzeko eta kudeatzeko erakunde kolaboratzaileak

Hauek izan ahalko dira onuradunak:

- 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren arabera (2015eko otsailaren 2an argitaratu zen), bitartekotza-zerbitzua ematerakoan jarduera hauek gauzatzeko baimena dutenak, enplegu-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeari dagokionez eskusiboki.
- Hurrengo erakunde hauek izendatu ahalko dira zentro laguntzaile, deialdi honi berariaz lotutako lan-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, baldin eta egoitza EAEn badaude:
 - Unibertsitateak.
 - Lanbide heziketako ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak.
 - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde kolaboratzaileak, 2018-2020ko deialdiko lanerako prestakuntza emateko dirulaguntzen eta 2019-2021eko deialdiko lanerako orientazioa emateko dirulaguntzen onuradun badira.
 - Udalak, mankomunitateak, kuadrillak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

ESKABIDEA I.ERANSKINA

Eskabideak aurkezteko epea **2020ko uztailaren 31 artekoa** izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

02. Kudeaketa eta trantsizio-prozesuaren jarraipena egiteko erakunde kolaboratzaileak

Hauek izan ahalko dira onuradunak:

- Unibertsitateak eta lanbide-heziketako ikastetxe publiko eta pribatu itunduak.
- Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipentzat joko dira erakunde kolaboratzailearen jardura hauek:
 - Enpresak zuzenenean hautatu dituen gazteen lan-eskaera berreskuratzea, beritzea, berikustea eta aldatzea.
 - Kontratututako gazteak kontratua sinatu aurreko egunetik hasita, gutxienez, Gazte Bermea Sistemari izena emanda daudela egiaztatzea.
 - Enpresak zuzenean hautatu dituen gazteek, kontratua sinatzeko unean, 5.1 artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzea eta bermatzea.
- Kontratu hori kontratatutako pertsonak egindako ikasketen edo prestakuntzaren mailari egokitutako praktika profesionala lortzeko bidea eman behar duen lanpostu baterako dela egiaztatzea.
- Prestakuntza Duala enpresan amaitu duten pertsonen kasuan, prestakuntza hori hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko bada, kontratua mugagabea dela edo gutxienez 12 hilabeteko praktikaldiko kontratua dela egiaztatzea.
- Kontratututako pertsona Lanbideko informazio-sisteman identifikatzea Lehen Aukera programaren bidez sustatutako kontratu bati lotutako pertsona gisa.

ESKABIDEA I.ERANSKINA

→ Eskabideak aurkezteko epea **2020ko uztailaren 31 artekoa** izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

02

Parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozedura

Programan parte hartuko duten gazteen **hautaketa** (eta kontratazioa) eskabidea aurkeztu baino lehenago egingo da, prozedura honi jarraituz:

1. Enpresak zuzenean hautatuta.
2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez.

01. Enpresak zuzenean hautatuta,

erakunde kolaboratzailea den zentroaren bidez, non 2019. urtetik aurrera titulazioa lortzeko kontratatuko den gazteak bere ikasketak bukatu baitituen, behin Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa zentro(et)an prestakuntza epealdia egin eta gero hauetako ereduren batean:

- **Prestakuntza duala**, prestakuntzaren xedea hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko denean.
- **Bekak**, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako tituluren bat lortu aurretik enpresan prestakuntza jasotzeko Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean 2019-2020ko kurtso akademikoan emandakoak.
- **Bekak**, Unibertsitate-eremutik lan-eremura igarotzeko trantsizio gisa Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean 2019-2020ko kurtso akademikoan emandakoak.

Enpresak, kontratuak egin aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrori joko du, baldin eta prestakuntza-zentroak lortu badu **trantsizio-prozesua kudeatu eta jarraitzeko erakunde laguntzailearen** izaera, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a artikuluetan ezarritako baldintzak eta 13.5 artikuluan adierazitako kudeaketaren eta prozesuaren jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.

02. Enplegu eskaintzen kudeaketa,

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez gazteak kontratatzeko, enpresak zuzenean hautatuta barne ez diren kasuetan:

- Hautaketarako, [eskaintza kudeatzeko eskaera bat](#) aurkeztu beharko da bete beharreko lanpostuaren profil bakoitzeko. Eskaera hori inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztu behar da, [IV. eranskinean](#) ezarritako ereduaren arabera.
- Eskaintza kudeatzeko eskaera bakoitza jasotzen duen bulegoak edo erakunde kolaboratzaileak erregistratuko du eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartekaritza-sisteman identifikatuta geldituko da. Eskaintza erregistratu ondoren, enpresari jakinaraziko zaio haren erreferentzia
 - [Lehentasuna](#) emango zaie [Gazte Bermea Sisteman izena emanda daudenei](#), 5.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
 - Lehen Aukera praktikaldiko kontratuaren modalitatea baliatuta aurreko edizioen batean kontratatu ziren pertsonak oraingo deialdiaren ondorioetarako kontuan har daitezke kontratu [mugagabearen modalitatean soilik](#), jada eskuratu duten lan-esperientzia gorabehera, baldin eta kontratu mugagabea egiten duen enpresa [ez bada praktikaldiko kontratua egin zuen enpresa](#) berbera.
- Eskaintza bat kudeatu ondoren hautagai gisa bideratu diren pertsonen egindako kontratuak baino ez dira diruz lagunduko
- Kontratu bakoitzaren komunikazio-prozesuan, enpresak nahitaez adierazi beharko du kontratu horri dagokion eskaintzaren erreferentzia.

03

**Diru-laguntzaren epea,
zenbatekoa eta ordainketa**

Diru-laguntzaren eskaerak aurkezteko epea

**Erakunde
Kolaboratzaileak**



Enplegu-eskaintzak biltzeko, erregistratzeko eta/edo trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko diru-laguntzen eskabidea:

2020ko azaroaren 2tik 13ra arte

Diru-laguntzaren zenbatekoa

**Erakunde
kolaboratzaileak**

Eskaintza biltzea eta erregistratzea: 120 €:

Eskaintza kudeatzea: 80 €

**Trantsizio-prozesuaren kudeaketa
eta jarraipena: 120 €**

} Zenbatekoak %10 handituko dira formalizatutako eta diruz lagundutako 20 kontratuko, enplegu-eskaintzak hartu, erregistratu eta/edo kudeatuko baditu

Diru-laguntzak ordaintzea

**Erakunde
kolaboratzaileak**



Ordainketa bakarra

**Laguntza emateko ebazpena
eman ondoren**